

## ERETAK IKUSTALDIA

1

IRAKASLEA

- Berri garrantzitsu bat dakarkizuet gaur. Datorren astean txango bat egingo dugu- esan die irakasleak haurrei.

Haur guztiak asaldatu egin dira eta denak galdezka hasi dira.

HAURRAK

- Eta, nora joanen gara?
- Autobusez joanen gara?
- Eta motxila edo bokata hartu beharko dugu?

Haurrak irakaslearengana hurbildu dira. Berak galderei erantzun die eta denek elkarrekin txangoa prestatu dute.

IRAKASLEA

- Eretak bisitatuko dugu, Berbintzana herrian dagoen burdin aroko aztarnategia da. Arkeologoek herri baten aztarnak aurkitu dituzte eta baita bertako etxeak eta erabiltzen zuten tresnak – azaldu die irakasleak

LAMINA PASA

2

Asier urduri eta buruan mila galdera dituela joan da etxera.  
Iritsi denean, irakasleak azaldutakoa eta duten plan guztia kontatu dio aitari.

ASIER

- Aita, zu burdin aroan bizi izan al zara?

AITA

- Ez. Ez ni, ez nire gurasoak, ezta aitona-amonak ere ... Hori duela urte asko izan zen!!!

ASIER

- Irakasleak herrixka bat bisitatuko dugula esan digu. Han bizi zirenak ikusiko dugu? Nolakoa izanen dira etxeak ? Haurrak egonen dira? Zer nolako jokoak izango dituzte? ...

Eta horrela, buruan erantzunik gabeko mila galdera dituela eta irudimena martxan duela, Asier lotara sartu da eta ...

LAMINA PASA

3

... eta ametsetan hasi da.

Ametsean, Asier leku ezezagun batean agertu da, harresi eta paisai bitxi bat ikusi du.

Bakarrik sentitu da, arduratua dago eta ez daki zer egin

ASIER

Zer egingen dut? Non nago? Laguntza! Ba al dago inor hemen?

Eta larriturik ibai ertzean eseri da.

Hain larriturik dago ezen ez den konturatu norbait hurbildu ziola.

LAMINA PASA

4

Bat batean haur bat ikusi du, baina... bai arraroa, janzkera hori, zergatik?

Beste haurra harriturik ere, Asierrengana hurbildu da.

Bi hurrek batak besteari jakin-minez begiratu diote. Haurrak antzekoak direla konturatu dira, baina haien janzkera oso desberdina dela.

HAURRA

Nor zara? Zer egiten duzu hemen? -galdetu dio haurrak.

ASIER

Nire izena Asier da eta ez dakit non nagoen, galdu egin naiz.

HAURRA

Nire izena Abulo da eta herri honetan bizi naiz.

Abulo Asier oso triste dagoela nabaritu du eta galdetu dio:

ABULO

- Nire etxera etorri nahi al duzu? Nire senideak ezagutuko duzu eta agian lagundu zaitzakete.

ASIER

- Bai, bai ... -erantzun dio Asierrek lasaiago.

Abulok bere tupina urez bete eta herrirantz abiatu dira.

LAMINA PASA

5

Bidean Abulok esan du:

ABULO

Egunero noa ibaira ur bila.

ASIER

Zertarako joan behar duzu ur bila? Zure etxean ez dago urik?

Abulo, zergatik daramazu janzkera hori?

ABULO

Begira Asier, hor dago nire etxea.

Asierrek harriturik begiratu du, etxe hori ez da bere etxea bezalakoa.

LAMINA PASA

6

Etxera sartzean, Abulok esan du:

ABULO

- Hau nire amona da, garia birrintzen ari da.

ASIER

Zertarako?

ABULO

Ba ogia egiteko.

ASIER

Eta zergatik ez duzue erosten?

ABULO

Erosi? Zer da hori?

Asierrek erosketak egitea zer den azaldu dioenean, Abulok erantzun dio.

ABULO

Ah! Guk gauzak trukatu egiten ditugu. Nire amonak hirina ematen du eta horren truke esnea, gazta eta haragia lortzen dugu.

*PAUSA EGIN*

Neska hau Calpurnia da, nire arreba -azaldu du Abulok-, ontziak egiten ari da.

EGONEZINEZ ETA POZTASUNEZ IRAKURRI

ASIER

Nik ere eskolan zeramika egiten dut eta asko gustatzen zait – pozik esan du Asierrek ezagutzen duen zerbait ikustean.

LAMINA PASA

7

Beranduago, gela batean sartu dira. Erdian sua pizturik dago eta andre batek sua egurrekin indarberritzen ari da

ABULO

- Ama, ama!! Begira zer pasa zaidan!!! – Ibai ondoan haur batekin topo egin dut, Asier du izena.

AMA

Lasai Abulo -esan dio amak- uraren zain nago janaria prestatzeko. Beranduago kontatuko didazu zer pasa zaizun.

Abulok amari gertatutakoa azaldu bitartean, Asier bere inguruari begira-begira dago jakin-minez.

AMA

Afalostean, guztiak etxean gaudenean, Asierri nola lagundu pentsatuko dugu. –esan du amak- Orain zure aita laguntzera joan behar duzu soroetara.

ABULO

Ama, eta bitartean nire lagunari herria nolakoa den erakutsi diezaioket?

LAMINA PASA

8

Abulo eta Asier etxetik atera dira.

ASIER

- Zertarako daukazue horma handi hori etxearen atzekaldean?

Abulok serio serio azaldu dio:

ABULO

Harresia da. Nire aitonak dio bera gaztea zenean, harresi gabeko beste herri batean bizi zirela. Baina erasotu egin zituzten, etxeek sua hartu zuten eta alde egin behar izan zuten. Horregatik hona etorri zirenean, egin zuten lehen gauza harresia izan zen. Oso urrutitik ekarri behar izan zituzten harriak!

ASIER

Eta etxeak? nola egiten dituzue?

ABULO

Denon artean egiten ditugu, babesteko harresiari atxikiak eta bata bestearen ondoan. Lehen buztinez eta lastoz egiten ziren, orain harriz eta adobez egiten ditugu iraunkorragoak direlako.

LAMINA PASA



## 9

Eta horrela, galde-erantzunean ari direla herritik atera dira.

ABULO

Begira, hor dago nire aita.

Asier pentsakor galdetu dio Abulori:

ASIER

Haurrek beti lana egin behar izaten duzue?

ABULO

Noski baietz. Zuk ez duzu lanik egiten, ala?

ASIER

Beno, zertxo bat bai. Eskolara noa eta eskolako lanak egiten ditut. Zu ez zoaz eskolara?

ABULO

Eskola? Zer da hori?

ASIER

Haurrak ikastera joaten garen lekua.

ABULO

Nik helduengandik ikasten ditut!

Eta berriketan aitarengana ailegatu dira

*POZTASUNEZ ESAN*

ABULO

Aita, gaur laguntzailea dakart.

Asier nor den azaldu ondoren, lana egitera abiatzen dira. Asierrek aita ikusita, laboreak mozteko igitaia hartu du.

AITA

Ez, ez, haurrek ezin dute erabili -esan dio aitak- Gure igitaia burdinazkoa da eta moztu egin zaitezke. Nik sega egingo dut eta zuek erortzen diren galburuak hartuko dituzue

Asier eta Abulo hartu ondoren, zapi batean gainean utzi dituzte.

LAMINA PASA

10

ASIER

Hemen bizi gustatzen zaizue?-galdetu du Asierrek.

AITA

Asko. Lur onak ditugu, ura hurbil dago, eta abereentzat zelai ezin hobeak -erantzun dio aitak.

ASIER

Hemen bizitzea gustatuko litzaidake, ez dago eskolarik ... Aizu Abulo, hemen ez al duzue inoiz jolasten?

ABULO

Bai, noski. Ibaian, kaleetan ... jolasten dugu lagunekin.

Baina Asierrek bere buruan zera pentsatu du: “ez dut jostailurik ikusi, agian hemen bizitzea ez da hain ideia ona”.

*PAUSA EGIN*

ABULO

Asier begira, hor nire osaba dago artaldea eta ahuntzak zaintzen -esan du Abulok.

*PAUSA EGIN*

*IRAKURRI LAMINA PASATZEN DEN BITARTEAN*

Eguzkia ezkututzen hasi denean, gauza guztiak bildu eta etxerantz itzuli dira.

11

Aitak lan-tresna pisutsuak daramatza haurrak bere inguruan jolasten ari diren bitartean. Asier harkaitz baten gainean igo da.

AITA

Ez, horra ez igo -esan dio aitak.

ASIER

Zergatik ez? Harkaitz batzuk baino ez dira eta.

Aitak zama lur gainean utzi eta seriozki azaldu dio.

AITA

Hau hilerria da, gure arbasoen hilerria.

ASIER

Guk ere hilerriak dugu -esan du Asierrek.

LAMINA PASA

12

Etxera iristerako beste guztiak haien zain daude afaltzeko. Asier eta Abulo goseak daude ere.

ABULO

Ama, zer dago afaltzeko?

AMA

Atzo arrantzan hartu genituen amuarrainak.

Denak, sutondoan eseri dira jana eta ogiarekin. Eguna nola pasa duten kontatzen hasi dira baina Abulo urduri dago.

ABULO

Itxoin, itxoin! Asierri nola lagunduko diogun erabaki behar dugu lehenik.

AITA

Bihar, eguna argitzen denean, aitonak eta Abulok zure herrira joaten lagunduko zaituzte. Aitonak bideak ongi ezagutzen ditu eta ez duzue inolako oztoporik izango.

Ohera sartu direnean, Asier bere senideez oroitu da eta triste jarri da. Abulorengana hurbildu eta ahopeka esan dio:

ASIER

Zure ondoan lo egiten dezaket?

13

*AHOPEKA ETA SERIO IRAKURRI*

Gaua iritsi da. Herrian denak lo egiteko prest daude. Bakoitzak bere manta hartu du. Helduek gelaren alde batean etzan dira eta haurrak beste aldean. Ahopeka hizketan daude.

PAUSA EGIN

Herrian isiltasuna geroz eta handiago da.

Denak lo daude lasai. Izan ere, jakin baitakite begiraleak dorreetan erne daudela.

LAMINA PASA

14

Asier eta Abulo, eskutik helduta, bata bestearen ondoan lo daude.

PAUSA EGIN

Bat batean, zarata handi bat entzun da, adar baten deiadarra entzun da eta denak esnatu egin dira.

DENAK

Zer da? Zer gertatzen da?

Haurrak harriturik eta logalez daude; lo egin nahi dute.

ASIER

Zer gertatzen da? Logurez nago eta ez dut inora joan nahi – hasi da Asier mainaka.

Baina helduak ongi dakite soinu horrek zer esan nahi duen.

AMA

Abulo, emaiozu eskua Asierri eta ez zaitezte askatu. Gure ondoan egon. Azkar! Denak plazara -agindu die Amak.

LAMINA PASA

15

Herritarrak herriaren erdian bildu dira.

Begiraleak urrutitik jendetza datorrela -azaldu diete – erasotzeko asmoz.

Aitonak eta beste agureek, gehien dakitenak direnez, herria nola babestu pentsatu dute:

AITONA

*TINKOTASUNEZ IRAKURRI*

Begiraleak, sua piztu dorre bakoitzean bizilagunak eta herrikideak ohartarazteko. Guk herria babestuko dugu erasotzaileak ez sartzeko. Indartsuenek harresiaren atea defenda dezatela

AGUREA

Beste guztiak, gizon eta emakumeak, hartu zuen armak eta harresiaren gainean jar zaitezte. Norbaitek ezkuta ditzala haurrak biltegian.

Behin babesa antolaturik, larri eta beldurrez zain geratu dira. Abulo ere laguntzen ari da, Asierrek ez daki zer egin.

*PAUSA EGIN*

Bat batean, kolpe batzuk entzun ditu, urduri dago; handik gutxira berriz entzun ditu kolpeak.

LAMINA PASA

16

AITA

- Asier bi aldiz deitu zaitut, altxatzeko ordua da! Prestatu! Ez al zara oroitzen gaur txangoa duzula?

Asier esnatu egin da, ez daki non dagoen, bere inguruari begiratu dio.

ASIER

-Eskerrak ametsa zela -pentsatu du Asierrek.

Beranduago, gosaltzen dauden bitartean, aitari ametsa kontatu dio.

*PAUSA EGIN*

Lasai arnastu du etxean egoteaz disfrutatuz baina aldi berean pozik dago Eretak bisitatuko duelako gaur.

**Eta hala bazan, edo ez bazan, sar dadila kalabazan eta atera dadila Berbintzanako plazan**

AMAIERA